

GUaiXE.net



Aitzkozar krosa bihar, **Iturmendi** eta **Bakaiku** artean



Kirolak >> 11

Trinitate festak ospatuko dituzte **Irurtzunen, Bakaikun** eta **Iturmendin**. **Irurtzungo** bi elkarteren urtemuga ere



Sakanerria >> 8/9



Etxarrin Euskal festa eta jaia asteburuan

>>> 7/15/16

Kontzertuak Lakuntzan haur parkea egin ahal izateko

Plazan izanen dira

>>> 15

Grebara dei eginez >>> 5

Munduko arrozak bihar goizean **Irurtzunen**

>>> 7

Herri baratzak martxan jartzeko eguzkiaren zain

>>> 9



Inasa, esperantzarako azken orduak >>> 5



Altsasun, 2013ko maiatzak 25 eta ekainak 8

%15 eko **deskontua** afarian lortiko kultur sarrera erakutsita

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekukak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



June Ijurko Legarra

ZORIONAK maitia! Ondo pasa eguna eta muxu erral-doi bat familia guztiaren partez. Izugarri maite zaitugu.



Ekhi Barandiaran Leiza

ZORIONAK etxeko mutilari! Hurrengo pilota partidua nork irabaziko du? Asko maite zaitugu.



Mikel Urrestarazu Peña

ZORIONAK ESKALADOR! Muxu asko zure 9. urtebetetzean. Zure familien partez.



Mª Cruz

Beste hamarkada bat uuuuu!!!! Zu egune ospatzeko aurten ajiekien, e? Muxuak denon partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

maiatzak

24-30

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Bandurrien taldea, Alkora, Los del Rayo, La banda del jefe Bigun. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 18:30etik aurrera Lakuntzako plazan. **Parkea Martxan.**

Akordeoi kontzertua. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 18:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Pablo Sarasate kontserbatorioko ikasleak.**

Txep + Stupenda Jones. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Irurtzongo Barazki gunean.

VI. Larrazpitek. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 22:00etatik aurrera Irurtzongo Larrazpi elkartearen.

Never surrender, Alerta Gorria eta Itziarren semeak. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 22:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Etxeko DJ. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 24:00etan Irurtzongo Pikuxar euskal txokoa.

Haize Berriak banda. Maiatzaren 26an, igandean, 19:30ean Etxarri Aranazko plazan.

Irurtzongo Musika Eskolako ikasleak. Maiatzaren 27an, astelehenean, arratsaldean, Irurtzongo kultur etxean. Atakondoako ikasleendako emanaldia.

Pablo Sarasate kontserbatorioko dauden musika eskolako ikasle ohiak. Maiatzaren 27an, astelehenean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Antzerkia

Lingua Nabajorum. Maiatzaren

25ean, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Tartean teatro.**

Bodas de sangre. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 20:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **El Bardo antzerki taldea.**

Lara Larica. Maiatzaren 26an, igandean, 17:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Zirika Zirkus Taldea**

Pailazoak

Pirritx eta Porrotx. Maiatzaren 29an, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko Burunda pilotalekuan.

Zinema

Los amantes pasajeros. Maiatzaren 24an, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 26an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Txirrindula irteerak

Mankomunitatearen martxa. Maiatzaren 26an, igandean, goizeko 7:00etan Altsasutik. Loiola-Arantzazu.

Erakusketak

Koldo Arnanz arte eskola. Maiatzaren 26ra arte Altsasuko lortia kultur gunean.

Itsasotik oihanera. Maiatzaren 26ra arte, astez 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara, Irurtzongo liburutegiko beheko solairua.

Itziar Nazabal arte eskola.

Maiatzaren 28tik garagarriaren 16ra arte Altsasuko lortia kultur gunean.

Pikuxar, 10 urte. Maiatzaren 30era arte Irurtzongo Pikuxar euskal txokoa.

Bertsolaritza

Triki bertso poteoa. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 17:30etik aurrera Etxarri Aranatz: Eneko Lazkoz, Jone Uribe eta Amaia Iturriotz.



Tailerrak

Auzo-konposta egiteko ikastaroa. Maiatzaren 28an, asteartean, 11:00etan eta 19:00etan Arbizuko udaletxean eta 11:00etan Iturmendiko udaletxean. Maiatzaren 29an, asteazkenean, 19:00etan Arbizuko udaletxean eta 11:00etan eta 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Maiatza 31n, ostiralean, 11:00etan eta 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Bestelakoak

Munduko Arrozak. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 10:00etatik aurrera Irurtzongo Foru plazan.

Euskal festa. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranatz.

Euskal jaiaren 90. urteurrena.

Maiatzaren 26an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Planta T, kosmetika naturala. Maiatzaren 29an, asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **14 urteik gora.**

Hitzaldiak

Pentsioen iraunkortasun faktorearen azalpena. Maiatzaren 24an, ostiralean, 18:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Pentsionistak Martxan.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 24an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Auzolana. Maiatzaren 25ean, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Dantzalekuan. Gosaria egonen da.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Osasun duinaren aldeko eskubidea. Maiatzaren 27an, astelehenean, 11:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Maiatzaren 27an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Greba orokorrera deitzeko kotxe karabana. Maiatzaren 27an, astelehenean, 16:00etan Irurtzundik abiatuta.

Bazkide zozketa



MAIATZEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO 2 SARRERA + KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
2- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO

AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
3- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
4- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1

Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ
% 20-ko deskontua kontsul-tan.

BASOMUTUR

ALTSASU
Menuan %6-ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU
Eguneko menuan, kafea doako. Karta menuan, kopa edo postrea doako.

AVIA GASOLINDEGIA

HIRIBERRI

0'05 €-ko deskontua litro-ko, erregai guztietan.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ
50€-ko erosketetan %5-eko deskontua.

ASENSIO

ALTSASU

100€-tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10€-ko balea. (Eskaintza ez metagarria).

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

2 produktu erosita, % 10 -eko deskontua.

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

BAT BIRAL:4U

EUSKAL
KULTURAREN
NAFARROAKO
ZIRKUITUA
2013



LINGUA NABAJORUM

Maiatzak 24

22:00

Etxarri Aranazko
Kultur Etxea

Antolatzailea





topagunea
euskara elkarten
federazioa

Babesle Nagusia





Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsak: Europa landa eremuetan inbertitzen

Babesleak



Laguntzaileak





Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Amildegia

Krisi latz honek kalte izugarriak ekarri dizkio gure gizarteari. Argi dago murrizketek, langabeziak edo etxe hustuketek behin betiko markatuko dituztela ondorengo belaunaldiak. Europatik Alemaniara Batasuna bultzatzen den heinean, hegoaldeko nazioek pairatzen dituzte zurruntasun germaniko-

aren gaitzak. Historiak kontatuko dizkigu gertatutakoak etorkizunean. Utzitako iturriak aztertuz, analisi zorrotzak egingen dira kausa eta ondorioak konparatuz. Iturri hauek izanen dira gakoa, erruak banatu eta mugimendu sozialak epaitzeko orduan.

Historialariek politikarien dis-

kurtso eta komunikazioak aztertzean, harriturik geratuko dira. Agintarien hitzaldien maila ikusirik kezkatuko dira, justifikazionak diren gauzak justifikatzeko ezintasunaz gainezka, irribarre inozoak erakutsiz, zeinen esku gauden argi uzten dutenean. Komunikabide publikoak manipulazio aldrebestuetan lokaztu-

ta, informatibo lotsagabeak irudituko zaizkie herritarren inteligentzia iraintzen dutela konturaturik. Gezurra gezurraren gainean. Herria nazkaturik, ezagutzen ez ditugun ondorioen kausatzat hartuko dituzte gobernatzeko ezintasuna erakusten duten bokaziorik gabeko politikariak. Adreiluaren semeak,

Aznarren ardiak, arriskua ikusirik noraezean, gidari gabe, amildegirantz doaz. Andian halakorik gertatu zen duela aste pare bat. Hori bai, segurtasun indarrek atera behar izan zituzten kinka larritik kikildutako ardi inozo haiek azkenean. Espero dezagun inork halako beharrik ez ikustea.

barrutik kanpora

PSOE eta errausketa zementu-fabriketan

Morata de Tajuña Madril probintziako herria da eta bertan dauka Portland-ek beste zementu-fabrika bat. Aspalditik daramate bertan, Portland-ek hondakinak errausteko edo euren hitzetan "energía balioztatzeko" proiektuaren aurka borroka eredu garria eta gogorra. FCCren zementu fabrikak Moratan erre nahi dituen hondakinak, hemen Portland-ek dagoeneko, Olaztiko udal autonomia zapalduz, baimendurik dauzkan berberak dira, pneuma-

tikoak, plastikoak, lohiak, zaborra (hondakinetatik eratorritako erre-gaia deitzen dutena) eta abar. Berriki Madrileko sozialistek, beren alderdiko kongresuan zementu-fabriketan hondakinak erretzearen aurka agertu zirenak, Madrileko PP-ko Ignacio Gonzálezen Gobernuari, Morata de Tajuñan hondakinak tratatzeko proiektuaren inguruan "serioski hausnartzeko" eskatu zioten, bertako biztanleen osasunerako eta ingurumen-erako kaltegarria izan

daitekeelako.

Era berean, Sagunton, UGT eta CCOO sindikatuak, bertako zementu-fabriketan hondakinak erraustearen aurka azaldu dira, PSV (Valentziako Alderdi Sozialista) bezalaxe.

PSOEn Ingurumen ardura-dun den Hugo Moranek, hondakinak zementu-fabriketan erraustea azken aukera zela adierazi zuen, ez daudelako jarduera hori burutzeko errauskailu edo balioztatze energetiko plantak

bezain ongi prestatuak.

Nafarroan, PSNren Tuterako eta Tafallako udal taldeak, eskualde horietan hondakinak erraustearen aurka azaldu ziren, jarduera horretarako bereziki eraikitako azken teknologiadun plantak erabili nahi baziren ere. PSNk, Olaztin, udalean zituen bi zinegotziak kanporatu egin ditu, hondakinak herrian erraustearen aurka agertzeagatik, eta UGT aldiz, enpresa estutzen ari da inguruko herritarren borondatearen aurka erraus-

ten has dadin. Alderdi horri eta sindikatu horri, Sakanan zer egin nahi duen aztertze koeta "hausnartzeko serioa" egiteko eskatu beharko genioke.

<http://olaztinerrausketarikez.blogspot.com.es>



3 Mugak batera

objektibo tik



Loreak udaberrian:

Asteburuko egun grisak kolorez bete zuen domekan Olatzagutian egingo dako 6. lore eta landare azokak. Eguraldi txarra zela eta Erburu kiroldegian egin zen. Goizean jendeak lore eta landare ezberdinak ikusteko aukera izan zuen. Baita erosteko ere. 9 postuk parte hartu zuten.



Klinikako lagunen batzarra:

Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak igandean, 11:00etan, batzarra egin du Iortia kultur gunean. Bere ibilbidearen bigarren urteko errepasoa egitearekin batera aurrera begira jarriko da elkarteak. Izan ere, klinikaren alde baliabideak lokalizatzen segitu nahi dute.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

gora/behera



Munduko arrozak

Jakiaren kontura topaleku ederra sortuko da bihar Irurtzunen.



Hezkuntza agintariak

Desinbertsioa eta murrizketak ez dira aurrera egiteko errezeta.

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Felix Alzelai

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

MANOS LIMPIAS-EN SALAKETA: Olaztiko udaletxeko bilkura gelan Angel Gurmindok Lizarragaren argakia dagoelako alkatea salatu du Manos Limpiais-ek Nafarroako

Auzitegiko fiskal nagusiaren aurrean. Argazkiagatik "terrorismoa goratzea" leporatu dio. +www.guaixe.net

sakanerria >>

SAKANA

Gizarte eta lan eskubideen alde, 30ean greba orokorra

Euskal gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, HIRU, CGT eta CNT) greba orokorra deitu du Hego Euskal Herrian heldu den ostegunerako. Grebarakodeia egin dute *Eskubide sozial eta laboral duinak*. Euskal Herria eredu propio baten alde lelopean. Sindikatu deitzaileek, eta batu zaizkien 60tik gora eragileek, grebara jotzea "beharrezkoa" dela adierazi dute: "Nahikoa da! esateko, gobernu ezberdinetatik datozen gure eskubideen kontrako erasoen aurrean".

ELAko Sakanako arduradun Gorka Viergek esandigunez, ostegunean "enpresak hustu eta kaleak bete behar dira". Viergek borro-



Sindikatu eta ordezkariek eta hainbat eragilek grebarako deia egin dute.

katzeko beharra dagoela adierazi du: "ongizate estatua eraisten ari dira eta enpresetan gero eta murrizketa gehiago izaten ari dira". ELAko arduradunak ziu-

tatu duenez, "lan erreformak lanpostu gehiago suntsitzea ekarri du eta, ondorioz, langabetu gehiago dago eta txirotasunean gero eta lagun gehiago daude". Sakanan

"benetan egoera larriak" ezagutzen ari direla azaldu digu Viergek: "gurekin zeundenak eta bizpahiru urte lana galdu zutenak orain pobrezia atzaparretatik ezin libratu ari dira. Horregatik, ostegunean ere jende horri elkartasuna adieraziko diegu".

LABeko ibarreko buru da Gaizka Uharte eta kalera ateratzeko "arrazoi dextente" daudela iritzi dio: "murrizketa murrizketen gainetik, erreforma erreformen gainetik ari dira". Uhartek adierazi digunez, grebak abiapuntua izan behar du: "aurrera begirako bide batean alternatiba bat mahai gainean jartzeko eta aurrera ateratzeko". Gobernuak egiten ari direna "goitik beherako klase borroka" gisa definitu zuen Uhartek; "dagoen aberastasuna goian metatzen da eta azpian, babes sozial eta zerbitzu publiko gutxiagorekin, gero eta egoera kezkarriagoan

Deialdiak

>> **Maiatzak 24, ostirala**
16:00etatik aurrera kanpaldia Altsasuko plazan. Ernai.

>> **Maiatzak 27, astelehena**
16:00etan Auto karabana abiatuko da Irurtzundik Sakana zeharkatzeko.

>> **Maiatzak 30, osteguna**
10:00etan Kontzentrazioak Irurtzunen, Etxarri Aranatzan, Altsasun (Netto), Olaztin eta Ziordian (harrobiko bidean).
12:00etan Sakana mailako manifestazioa Altsasun, plazan. Kapitala inguratu.
18:00etan Sakana mailako manifestazioa Irurtzunen, herritik Inasara.

gaude. Horri buelta eman behar zaio". Goitik indarrean jarritako neurri eta politikei aurre egiteko erabakitze eskubiderik ez dugula nabarmendu du LABeko kideak. Egoera iraultzeko borrokan dauden sektore guztiek indarrak metatzeko deia egin du Uhartek.

Irurtzun

Inasa, esperantzarako aukerari eutsiz

Langileek eta herritarrek makinariaren zati bat ateratzea eragotzi dute arratsaldean

Inasa bizirik mantentzea "gaur egun" posible dela uste dute hainbat langilek: "inbertsiogilearen interes hor jarraitzen du: eta aukera juridikoak ere badaude. Hartzekodunen prozesu honetan posible da eskaintzak egitea; gainera, horretarako bideak ireki dira". Inbertsiogile baten "apustu serioa badago Inasan aukerak daude, baita lege aldetik ere. Salmenta atzera bota daiteke". Prozesuko hainbat eragileekin elkarrizketan aurrerabideak izan direla azaldu dute. Borondate kontua dela adierazi dute eta haien buruari jarri dioten zeregina da lantegitik makinariarik ez ateratzea.

Langileen ordezkariek azaldu dutenez, hartzekodunen prozesuaren une honetan enpresatik makinaria ateratzeko "etorkizuna baldintzatu dezake. Hori ez gertatze-

ko makinariak hemen gelditu beharko du". Inbertsiogile batek benetako proposamena egiten badu 135 lanpostu baino gehiago sortu daitezkeela azaldu dute. Bestalde, Baikapek 13 langileko enpresa batendako aurkeztu duen borondatezko hartzekodunen lehiaketa makinaria saltzeko "iruzurra" dela salatu du LABeko Sakanako arduradun Gaizka Uhartek.

Igandean lantegia ez desegiteko eta harendako etorkizuna aldarrikatzeko 500dik gora pertsonen manifestazioa egin zuten Irurtzunen.



Langile harresia



Baikap-ek (Bavaria Industrial Kapital AG) Bridnorth Aluminium Limited enpresari Inasako makinariaren zati bat 1,3 milioitan saldu zion. Herenegun enpresa ingeleseko hiru langile Irurtzunen egon ziren. Enpresaren atean zaintza egiten ari ziren langileek 16:00ak aldera langile harresia sortzeko deia egin zuten, susmoa baitzuten makinariaren tresneria elektronikoa eramateko asmoa izan zutela, geldituko litzatekeena baliogabe uzteko.

Inasako enpleguaren defentsan deialdiari erantzunez hainbat langile eta makina bat sakandar bildu ziren lantegiaren atean. Eta ingelesei argi utzi zieten pertsonen joan etorria errespetatuko zutela, baina inolaz ere materiala ateratzea. Horretarako giza harresia sortu zuten. Guardia Civilaren babesa eskatu zuten eta haiekin negoziatu ondoren, zihozan autoan inolako tresneriarik ez zegoela baieztatu zuten Guardia Civilek eta ondoren, Inasaren aldeko oihu artean, atera egin ziren. Antza barruan furgoneta bat utzi zuten.

Inasako langileek enpresaren ate ondoan zaintzarako estalpea prestatu zuten eta han geldituko ziren haietako batzuk, zaintza egiten eta mugimendurik badago alarma deia zabaltzeko prest. Inasatik inolako makinariarik ez ateratzeko. Sakandarrei eta nafarrei lantegiaren, Inasako eta ibarreko enpleguaren alde egiteko eta behar den guztietan langile harresiari batzeko deia egin diete, "espekulatzalei aurre egiteko". Atzo ingelesak segurtasun pribatuarekin sartu ziren lantegian.

107.3 FM

beleixe

edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda

Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, Inasa, herri baratzak, euskal jaia...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Pigtu irratia!

M-30

GREBA OROKORRA

Maiatzaren 30ean,
10:30etik aurrera grebaren jarraipena Beleixe irratian



BULTZA ALDAKETA SOZIALA!

KAPITALA INGURATU

**10:00ETAN
MOBILIZAZIOAK**

**Olazti, Altsasu, Etxarri Aranatz eta Irurtzunen
(NETTO)**



**12:00ETAN Altsasu (FORUEN PLAZA)
ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA
KAPITALA INGURATU**

**18:00ETAN Irurtzunen herritik- Inasara
MANIFESTAZIOA
ETA HERRI-HARRESIA**



Greba Orokorra deitzen duten sindikatu eta eragile sozialak

M-30 GREBA OROKORRA

NAFARROAK BEHAR DUEN ALDAKETA SOZIALAREN ALDE

MOTZEAN



Etxarriko euskal festarekin batera jaiaren urteurrena

Bihar, 11:00etatik aurrera aletuko da egitaraua

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak, udalaren eta plazako tabernen laguntzaz Euskal Festa antolatuko du biharko. 11:00etarako herri mugimenduetako ordezkariak haiensalmahaiak jarriko dituzte plazan. Eguerdian Etxarriko auzoen arteko herri kirol probak jokatu dira. 13:00etan, berriz, Etorkezuna dantza taldea eta Zizurkilgo dantzarien saioa izanen da. Dantzariak despeditu ondoren herri bazkaria izanen da. Eta mahaitik jasotakoan Eneko Lazkoz, Jone Uria eta Amaia Iturriotz bertsolariekin poteoan ariko dira. Euskal Festako egitaraua despeditzeko, 22:00etan, kontzertuak izanen dira gaztetxean. Bestalde, 1923ko maiatzaren 21ean, Euskaltzaindiak antolatuta, Euskal Jaia ospatu zen Etxarri Aranatzan. Efemeride hori gogoran, iganderako, plazan ekitaldia prestatu da, 19:00etan. (ikus Guaiexeko 15. eta 16. orriak).

Porlandegiko hitzarmena sinatu dute

UGTk (4) eta CCOOk (2) babestu dute, ELAK (3) ez, lan erreformaren kontra blindatuta ez dagoelako

Aurreko asteartean sinatu zen porlandegiko lan hitzarmena. Zuzendaritzarekin adostutakoaren arabera, langileen soldatak eta haien pentsio plana bi urtez izoztu egingen dira. Horrekin batera, langileak porlandegira eramaten dituen autobus zerbitzua kendu egingen da. Hitzarmenak oporrei ere eragiten die, eta 3 egutegi sortu dira. Langileek 15 egun udan hartzeko aukera izanen dute, porlandegia gelditzen denean. ELAko ordezkariak neurri horiek sinatzeko prest zeuden, baldin eta hitzarmena lan erreformaren kontra blindatu balitz. +www.guaixe.net

SAKANA

Plazetan presoan eskubideen alde

Herrirak gehiengoak artikulatu nahi ditu esparru guztietan, "gehiengoaren adostasunetik gehiengoaren ekintza sozialera" pasatzeko

Herrira mugimenduak deituta larunbatean Sakanako plazetan ekimenak egin ziren. Herri bakoitzak bere modura baina helburu komun batekin: Espainiako Gobernuari gatazkaren konponbidean pausoak emateko eskatzea, salbuespen egoerak gainditzeko. *Giza eskubidea. Irtenbidea. Bakea* leloa

izan zuten plazetako mobilizazioek. Herrirak zabaldu duenez, Irurtzunen 70 pertsona bildu ziren, Arakil-Ihabarren 13, Arbizun 226, Etxarri-Aranatzan 30, Bakaikun 40, Urdiainen 30, Olatzagutian 93 eta Ziordian 45. Gainera, Lakuntzan eta Altsasun ere ekimen horrekin bat, ekimenak izan ziren.

Herrirako kideen ustez, larunbatean Euskal Herrian egin ziren 200dik gora mobilizazioek eraku-



Bakaikun Euskal Herriko maparekin mosaiko erraldoia sortu zuten.

tsi dute "euskal herritarren artean adostasun zabala dagoela salbuespen neurriak bertan behera uzteko". Horegatik, Herrirak ados-

tasun hori antolatuta nahi du esparru sozial guztietan, neurri handiko mobilizazio prozesu bat abian jartzeko.



Gizarte Zerbitzuek BGLko diru-laguntza deialdiaren kontra jo dute

Deialdiko oinarriak aldatzeko helegitea aurkeztu dute, Nafarroako Mendialdeko herri txikiak guztiz kaltetzen dituelako

Sakanan dauden Gizarte Zerbitzuetako hiru mankomunitateak Nafarroako beste bostekin batera, Babestutako Gizarte Laneko (BGL) diru-laguntza deialdia arautzen duen Foru Aginduari helegitea aurkeztu diote. Mikel Razkin (Irurtzun), Nerea Navarro (Etxarri Aranatz), Arantxa Erbiti eta Erkuden Imaz (Altsasu) teknikariek azaldu dutenez, "orain arteko proiektuetan ez bezala, esleipen irizpi-

deak aldatu egin dituzte eta eskalderako behar zehatzei erantzuteko aukera izan beharrez, biztanle kopuruari lehentasuna eman zaio eta ondorioz herri txikiak kaltetan aterako dira".

Teknikariek argitu dutenez, "mankomunitate bakoitzari mugajartzen zaio, mila biztanleko gehienez 3 hileko kontratazio egiteko aukera besterik ez baitu onartzen". Foru Agindua aldatu eta jasotzen dituen mugak baztertzeko eskatu dute. Haien gutxieneko eskaerak ez azaldu dituzte, deialdia malgutzeko:

30 hilabete 1000 biztanleko eta, justifikatuta balego, joan den urteko diru-laguntza gehienez %10 igotzea. Gizarte Zerbitzuetatik nabarmendu dutenez, azken 3 urteetan %70 jaitsi da BGLrako diru kopurua. Deialdia dagoen moduan onartuz gero, murrizketa mendialdean %85ekoa izanen litzateke. Helegitea jarri dutenek salatu dute Foru Aginduak gizarte zerbitzuen eta finantziario legea urratzen dutela.

Zer da BGL

Gizarte bazterketa egoeran edo

Kontzentrazioa

BGL defendatu! leloa duen kontzentrazioa astelehenean, 10:00etan, Iruñeko Gonzalez Tablas kalean egingen da, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politika Saileko bulegoan aurrean.

arriskua duten pertsonen lan munduan eta gizartean txertatzeko aukera ematen duen programa da BGL. Pertsona horiei lan ordaindua eskaintzeaz gain, akonpainamenduaren bidez gizarte eta lan trebetasunak lantzen dira. Finantza krisiak ekarri duen ondorioetako bat da programan sartzeko gero eta pertsona gehiago daudela.

Irurtzun

Munduko gastronomia ezagutu herritik atera gabe

Larunbatean, 10:00etatik aurrera Irurtzuno Foru plazan Munduko Arrozak ekimena

Bihar goiz-eguerdian Irurtzuno plazatik pasatzen den guztiak arroza prestatzeko modu ezberdinak ezagutu eta haiek dastatzeko aukera izanen du. Irurtzuno kulturaren naztasun gastronomikoak horretarako aukera ematen du eta horregatik hura ikusgarri egin nahi izan dute, beste behin ere.

Atzerrira joan gabe hainbat tokitako kultura ezagutzeko, jakiak

dastatzeko modua izanen da. Gainera, arroza prestatzeko errezeptak eskuratu, "sekretuak" partekatu eta sukaldariekin iritziak trukatzeko aukera emanen du Munduko Arrozak ekimena. Senegalgo, Marokoko, Ekuadorreko, Irurtzuno eta Argentinako gastronomia ezagutzeko aukera izanen da bihar: Gainera, musika, jolasak, hizkuntzak, arabiar grafia ezagutzeko tailerra, janzkerak ezagutzeko bidea izanen dute adin guztitako sakandarrek. +www.guaixe.net

SAKANA

Kalitatezko eskola publikoaren alde

Nafarroako Gobernuak azken urteetan hartutako erabakiak bi ondorio ekarri dituzte: hezkuntza publikoaren kalitatean kalte larriak eragin itu, baita irakasleen lan baldintzetan ere. Izan ere, irakasleen gaixotasun bajak ez dira berehala ordezkatzen, ikastetxeren funtzionamendurako diru-laguntzak murriztu dira eta 800 irakasle kaleratu dituzte. Gainera, Espainiako Gobernuak tramitatu duen LOMCE legea ere

hor dago.

Horiek guztiak salatu eta hezkuntzan berrinbertsioa eskatzeko, atzo eskola publikoaren eguna ospatzera deitu zuten LAB, STEE/EILAS, CCOO, CSIF, ELA eta UGT sindikatuek. Ikastetxe bakoitzean mobilizazioak eta jarziren atzo, eskola publikoaren defentsan. Haietan hezkuntza komunitateko kide guztiak (guraso, ikasleak, irakasleak eta irakasle ez diren langileak) parte hartzera gonbidatuak zeuden.

PIVE PLAN BIKAINA

PRECIOS SÚPER ESTRELLA

carstore.citroen.es-en

SERIE BEREZIA

CITROËN C4 HDi TONIC 13.300€*

CITROËN C-ELYSEE VTI EXCLUSIVE 10.500€*

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ IGORPENA (G/KM):
 CITROËN C4: 4,2-6,4 / 109-148
 CITROËN C-ELISÉE: 4,1-6,5 / 108-151

*Citroën C4 HDi 90 Tonic PSP aholkatua, (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne), bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen kobrea emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala eta 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, Banque PSA Financien bidez Citroën PREMIUM finantzatu luke eta Essentialdrive komertzial bermearen luzapena kontratatuko lukeena gutxienez 2+1 edo 40.000 km (lehenengo gertatuko dena) hilabeteko abono bidez; finantzetaren gutxieneko iraunkortasunaren betebeharrarekin, 36 hilabeteko zerbitzuekin, Citroën C-Elysee VTI 72 Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne) bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen Citroën bat emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala finantzatuko dutenak, 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, AXA S.A. aseguru etxean kobretarako aseguruarekin reaseguratu kontratatuko dituztenak Banque PSA Financien bidez, erregistro zenbakia web orrian ikusgai www.orias.fr. Hilabete akaberako eskaintza partehartzailen salmenta tokietan. Modeloa ikusgarri: Citroën C4 Exclusive eta Citroën C-Elysee VTI 72 Exclusive. Eskaintza ez metagarria. Baldintzak www.citroen.es

SAN MIGUEL AUTO-TAILERRAK S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

>> Altsasu

Sunsundegui eskuz aldatu da

Sodena enpresa publikoak zuzendaritzako bost kide (%51) eta 136 langileren (%49) esku utzi du

Sunsundeguiaren jabetza eskuz aldatzeko agiriak sinatu berri dira eta dagoeneko zuzendaritzaren eta langileen esku daude enpresaren 150.000 akzioak. Lantegiak 250.000 euroko balioa izan du. Langile bakoitzak 548 akzio eskuratu ditu, 1,66 eurotan. Guztira 915 euroko ekarpena egin du langile bakoitzak, udako estratik kenduko zaiona. Errelebo kontratu lanean ari diren langile batzuk enpre-

sa berriko bazkide dira, eta beste batzuk ez.

Joan den astelehenaz geroztik ez da espedienterik eta langile guztiak lanean ari dira. Lanez gainezka omen daude. Urtea beteta omen dute eta heldu den urterako eskerak jasotzen ari direla jakinarazi dute. Bestalde, eta adostutakoari segituz, Sodenak 4,5 milioi emanen dizkio Sunsundeguiari. Aprobilaren 20an 2 milioi eman zizkion, beste bat astelehenean eta garilaren 20rako beste 1,5 milioi espero dituzte lantegian. +www.guaixe.net

>> Bakaiku / Iturmendi

Santa Marinara

Lainoen gainean beharrezko haien azpian, edo hobe eguzkitan, biltzea nahi lukete etzi bakaikuar eta iturmendiarrek. Azken horiek dira aurren Trinitate ospakizuna antolatzeaz arduratzen direnak. 10:00etan gora igotzeko etxajua botako dute. Eguerdian auzatea izanen da akordeoilariak alaituta, eta 12:30ean meza. 14:00ak aldera familiak, lagun taldeak eta bi udalak bazkaltzera eseriko dira. Bueltako bidea hartu aurretik mendiko plazan dantzaldia izanen da. Iturmendiko plazan izanen du segida festak, 20:00etatik aurrera Iñigo Etxenike DJ ariko da.

MOTZEAN

Aurrekontu faltak porlandegiaren balioztatze asmoa atzeratu du

Halaxe aitortu zuen aurreko ostegunean Cementos Portland Valdeirivasko (CPV) presidente eta kontseilari delegatu Jose Luis Saenz de Mierak. Olatzagutian izan zen zuzendaritza, enpresa batzordearekin bilduta. Hondakinak balioztatze aurretik egin beharreko lanak noiz hasiko ziren galdetu zion enpresa batzordeak presidenteari eta hark erantzun zuen aurrekontu faltagatik atzeratu egin direla. Saezek ziurtatu zuenez, "ahal denean eginen dira lanak, porlandegiaren lehiakortasuna mantentzeko balioztatzea beharrezkoa baita".

Bilera berean Saezek azaldu zuen CPVren aurtengo aurreikuspenak txarrak direla eta hurrengo urtekoak okerragoak. Horregatik, kalera tzeak, kontratuak aldi baterako eteteko enplegu erregulazio espedienteak, ondasunen salmenta eta beste egin beharko zituztela azaldu zuen Olatzagutian. Hori guztia negoziatzeko mahaia maiatzean Madrilen osatuko dela aurreratu zuen. Bestalde, Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu bidez interes orokorreko izendatu ditu Olatzagutiako porlandegian erregai alternatiboen balorizazioa egiteko udalez gaindiko proiektu sektorialean (UPRS) aurreikusita dauden obrak.

Gemman eta Mekalsan gaur greba

Gipuzkoako metalgintzako hitzarmena duten Gemma (Bakaiku) eta Mekalsa (Altsasu) enpresetako langileek "lan hitzarmenaren defentsan" grebara joko dute gaur. LABetik jakinarazi dutenez, garilaren 7a baino lehen akordio bat lortzen ez bada, Gipuzkoako metalgintzako hitzarmena desagertu egingen da. Sindikatuak dioenez, "langileen egoera oso larria da. Lan erreformak, enpresari gehiegikerien aurrean babesik gabe uzten ditu". +www.guaixe.net

Kattukak badu guraso elkarte

Kattuka haur eskolako gurasoak batu eta elkarte sortu dute. Izan ere, haurren lehen urtetako zaintzan eta heziketan, profesionalen gain, familien parte hartzea ezinbestekoa dela iruditzen zaie. "Berebiziko garrantzia eman behar zaio adin hauetako haurrek bizitzen dutenari eta horretan familiak gara kontzientzia hartu behar dugun lehenengoak. Lehen hiru urte hauetan biziko dutenak eragingo die bizitza osorako". Horregatik, hezitzaile profesionalen batera, ahotsa izan nahi dute familiek, elkarrekin Kattuka eraikitzeko. Horretaz gain, haur eskolari dagokion garrantzia eman nahi diote, "eta behar den estamentuetan 0-3 urteko haurren hezkuntzarako eskubidea aldarrikatu". Asmo horietan guztietan aurrera

egiteko prestakuntza ezinbestekotzat jo du Kattukako guraso elkarteak, horrela, besteak beste, ezjakintasunari eta hainbategoeren aurrean gurasoek sentitzen duten segurtasun faltari aurre egiteko. Hezitzaileekin antolatutako kafe tertuliak izan dira orain arteko prestakuntza bidea. Baina zigor, erregresio eta gatazken inguruan aritzeko Nerea Mendizabal psikopedagogo eta haur masajerako hezitzailea gonbidatu dute. Garagarriaren 4an, asteartean, izanen da Kattukan. Kafetxo bat hartuta haien kezka azaltzeko aukera izanen dute interesatuek.

Kalean egindako lapurreta txikiez gaztigatu du Foruzaingoak

Gehiegizko adeitasunez jendearen konfiantza irabazten saiatzen dira

Foruzaingoak jakinarazi duenez, Sakanako hainbat herritako kaleetan ebasketa edo lapurreta txikien saiakera handitu egin da. Hilaren 15ekoa da jaso duten azken salaketa. Gizon batek ongintzako ekintza baterako bi emakumek eskutakoa sinadura eman zuen. Nortasun agiriaren zenbakia eman behar zuela eta aitzaki horrekin gizonari kartera aterarazi zioten eta agiria ikusteko. Hura emakumeei erakutsi ondoren gorde egin zuen, baina minutu batzuetara 60 euro faltan zituela konturatu zen gizona. Beste kasu batzuetan, Foruzaingotik azaldu dutenez, lapurrek kalean dauden sakandarrei laguntza edo argibideren bateskatu izandietea esker onez detaileren bat ematen zieten bueltan, une hori ebasteko baliatuz. Askotan adinduei saiatu dira dirua edo baliozko objektuak ebasten. Lapurren talde ibiltaria izan daitekeenaren susmoa du Foruzaingoak.

Musika ikasketa ez ofizialak Altsasun



Musika eskolak eskainiko ditu. Izen ematea hilaren 31ra arte dago zabalik

Ikasketa ofizialez gain, heldu den ikasturteetik aurrera Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan ikasketa adar ez ofiziala izanen da. Adar hori herritarren eskaeratik sortu da. Bere berezitasuna dira: ez duela eskolako ikasketa plana jarraituko; ez duela Musika Hezkuntza jorratuko eta ikaslea instrumentua jotzen trebatuko dela bakarrik. Interesatuek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte eta instrumentu propioa. Klaseak taldeka izanen dira eta haiek sortzeko 6 pertsona interesatu egon beharko dira. Astero ordu bateko klasea izanen da eta, horregatik, hileko 24 euro ordaindu beharko dira. Eskolatik jakinarazi dutenez, plazak mugatuak dira eta izen emate ordena errespetatuko da. +www.guaixe.net

>>

Saizendako hiru sari edertasun lehiaketan

Igandean Iruñean egindako ekitaldi batean aurtengo Nafarroako Edertasunaren Errege-Erreginak aukeratu zituzten: Carolina Lacalle eta Iosu Valero. Finalera iritsi ziren dozena bat hautagaien artean Natalia Saiz altsasuarra zegoen. 19 urteko gaztea lehen dama gisa hautatua izan zen. Hautagaiak beraiek Saiz Sinpatia erregina gisa hautatu zuten. Horrekin batera, altsasuarrak Fulber shop Erregina eta Cuerpo Fitness 19 izendapenak jaso zituen.

+www.guaixe.net



Natalia Saiz altsasuarra lehen dama eta sinpatia erregina izendatu dute. UTZITAKOAK

gertutik >>

Natalia Saiz

Edertasun lehiaketan aritua

Nolaz aurkeztu zinen lehiaketara? Familiak eta lagunek animatuta. Babes handia eman zidaten eta oso motibatuta joan nintzen. Casting-ean gaizki pasatu nuen, lauzpabost kideko epaimahaiak etengabe galderak egiten, bizpahiru desfile... Baina ongi ateratu zen eta jendea ezagutu nuen.

Zer espero zenuen?

Bide bat ibiltzen hasteko ideia nuen. Oso mundu gogorra da, ez da dirudien bezain polita. Baina buru-belarri sartzeko goz nago.

Nolabait prestatu zara?

Egunero bi ordu ematen nituen gimnasioan, gorputza konpentsatzeko. Ondoren, ordu erdiko korrikaldia eta luzapenak. Eta etxean takoiekin aurrera eta atzera ibiltzen. Lagunen babesa izan dut horretan.

Eta emaitzarekin zer moduz?

Gala hasi orduko bi sari jaso nituen. Pozik eta animatua hasi nuen. Hirugarren saria jaso nuenean zorte gehiegi zela pentsatu nuen. Azken finalistaren artean aukeratu ninduten eta epaimahaiari azaldu nion zergatik aurkeztu nintzen: zaila da gu moduko gazteek aukerak izatea ametsak betetzeko, bai modan bai orokorrean. Emaitzarekin pozik nago. Delegazioak eta agentziak asko lagundu naute.

Orain zer, modelo gisa lan egiteko asmorik?

Estatuko arduradunak esan zidan bere gustukoa nintzela. Gerta daiteke beste erkidego batean delegaziorik ez egotea, on line castinga egitea eta horren bidez Espainiako lehiaketan parte hartzeko aukera izan dezaket. Las-tailaren 30etik azaroaren 9ra Fuengirolan izanen da. Ikus zaitzaten eta ahalik eta gehien eza-gutzera emateko aukera da.

Bestela, zertan zabilta?

Vilanova i la Geltruko Totspots Basquet Sama taldearekin Kataluniako lehen mailan aritu naiz denboraldi honetan eta seigarren bukatu dugu. Oso ongi. Asmoa orain Iruñera bueltatzea eta batxilergoa eta modelotarako ikastea da.

Udaberriko G argazki lehiaketa

>> Saria: SAVÁN informatikak eskainitako liburu digitala

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. Argazkiak Sakanan hartutakoak izan beharko dira. Argazkilari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri beharko dira: egilearen izena-abizenak, telefona, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak berretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

» Etxarri Aranatz / Altsasu

Herri baratzak ere eguzki eske

Euria, langarra eta atzera ere euria. Jendea amorrarazi du eguraldiak. Arrazoiak ugari ematen ditu jendeak ikustea garesti den eguzkia eskatzeko. Arrazoiak bat da baratza lantzeko aukerarik ez duela uzten. Eta horregatik hain zuzen daude Etxarri Aranatzko eta Altsasuko herri baratzak egitasmoak geldi.

Etxarri Aranatzko herri baratzak egitasmoa sustatu duen taldeko kide da Joxan Jaka. Belexe Irratian (FM 107,3) azaldu duenez, hitzetik ekintzetara pasa eta udalari egitasmoa aurrera eramateko lur saila eskatu zioten. 25.000 metro karratuko lur-saila utzi zion udalak Baratzetan. Autogestioaren bidez denon artean kudeatuko dute, "hasieran behin-

tzat", baina 1.000 metro inguru lantzen hasiko dira.

Herri baratzak taldean 30en bat etxarriar daude, baina nahi duen guztiak ateak zabalik ditu. Intereza eta gogoak baditu, horrekin nahiko da. Ez du zergatik baratzekontutan jakin beharrik", zehaztu du Jakak Belexe Irratian (FM 107,3). Azaldu duenez, helburua da belnaldien artean jakintza partekatzea. "Baratza izanen da, baina komunikatzeko, gustura pasatzeko eta jan garbiak ikasteko espazio bat da ere". Lur-saila modu ekologikoan landuko dute, "orain dela 40 urtera arte landu zen moduan". Zergatiaz galdetuta, "udalak garbi utzi digun lur-saila hala edo garbiago bueltatu nahi dugulako", esan du Jakak. Proiektu "zabala" dute



Etxarri Aranatzeko herri baratzak egiteko zehaztu duten eremua.

buruan, "lorategi bat izanen balitz bezala, herriko edozein jende sartu daiteke". Horregatik, ikastetxeekin eta aritutako zenbait jendekin harremanetan ere jarri dira.

Altsasu

Aritz Urdangarin nekazaritzan teknikoa dena irakasle dutela, nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroa egiten ari dira 20 bat per-

sona, gehienak 40 urtetik gorakoak eta sekula baratzik izan ez dutenak. Lau saio dira. Bi dagoeneko eman dituzte, baina eguraldiak laguntzen ez duenez, beste biak atzeratu behar izan dituzte.

Sakanako Langabetuen Asanbladak (SLA) antolatuko ikastaroa, eta herri baratza sortzeko egitasmoarekin lotuta dago. Egitasmo horretan interesa duten guztiak ez doaz ikastarora, batzuke eskarmen-tua dutelako. Urdangarinek azaldu digunez, Udalak San Joan ermita inguruan lur sail bat utzi dio SLA-ri. "Orain partzelak banatzen ari dira. Bakoitzak lau pertsonako familia bat jakiz hornitzeko" tamaina izanen du. Irakasleak ere gaineratu du herri baratzekin langabetuek zerbait egiteko aukera izanen dutela. SLAk kudeatuko du espazioa, ura behar dutenean udalak hornituko ditu. Haziak eta lan tresnak norberak eramane beharko ditu.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza furtua: Europa landa eremuetan inbertitzen LGP 2007-2013 (LEADEReko 4. ardatza) programako furtuak, Europar Batasunaren Inbertizioarekin (% 55), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Furtuaren (LEADER) bidez

» Irurtzun

Asteburuan Trinitateko festak

Ergara igandean igoko dira irurtzundarrekin batera mendiaren inguruko herrietakoak ere

Bihar hasiko dira festa txikien ospakizunak eta bi elkarteren urteurrenek aparteko giroa jarriko dute Irurtzunen. Erga Larreak elkarteak 25 urte bete ditu eta Pikuxar euskal txokoak, berriz, 10 urte beteko ditu zabaldu zenetik.

Erga Larreakoak Iñaki Bizkai akordeoilariarekin kalejiran ibiliko dira bihar 12:30etik aurrera. 14:30ean elkartean bazkaltzera 41 kide bilduko dira. Eta mahaitik jasotakoan Pikuxarrekoekin bilduko dira eta, txaranga lagun, guztiak kalejiran ariko dira. 74 dira eta inork nahi balu bazkide egiteko aukera luke."

Pikuxarrek, berriz, hasteko eta behin eguerdian doako pintxo dastatzea eskainiko dute euskal txokoan bertan. Ondoren urteurren bazkaria izanen da. Handik



Igandean Ergako erromeria izanen da, otamena eta guzti.

jaso ondoren, Galtzagorri txaranga lagun dutela herrian barna poteoan ibiliko dira. 20:00etan Barazki gunea musikaz beteko dute Txep eta Stupenda Jones taldeek. Eta musikarekin despedituko dute urteurrena Pikuxarren, gauerditik aurrera Etxeko DJ ariko baita musika jartzen.

Irurtzunge euskal txokoak gaur egun 80 bat bazkide ditu. Eta berriak hartzeko ateak zabalik dituzte: garagarzaroko batzarrean onartuko dituzte berriak.

Kantatzeko gonbitea

Irurtzundarrei biharko eskaintza hori eginen diete. 19:00etan dago

Larrazpitek

Musika elektronikako seigarren jaialdia Konbat edizioa izendatu du Larrazpigazte elkarteak. Gauean plateretan honakoak txandakatuko dira: Iker Allo & Xabi DC; Nóle & Gordon; Arriza & Editer; Inaland & Nitro; Kirikol & Xabi the butcher eta Iker & Gonzalo.

hitzordua jarrita, Tahonan. Matxainera jaitsi eta Elizpeatik Gernikara, kalez kale segituko dute plazan bukatzeko. Kantatzea gustatzen zaion jendea elkartu eta betiko euskarazko eta gaztelaniazko kantak abestuz ongi pasatzeko asmoa dute buruan biharko deialdiaren antolatzaileak. Juan Angelek azaldu digunez, afaldu ondoren kantatzen diren 50 bat kantu bildu dituzte biharko. Ibilbidean barna zenbait geldialdi egin eta

Egitaraua

»» **Maiatzak 25, larunbata**
9:00etatik aurrera Irurtzunge XXI. Pilota Txapelketaren finalak (6 maila). Domingo Nagoreri eta Alfredo Sarasolari omenaldia.
10:00etatik 14:00etara Munduko Arrozak.
 Erga Larreak eta Pikuxarren Urtemuga (Egunean zehar)
17:30etik 20:30era Birziklatutako golf zelaiaren ikuskizuna.
19:00etan Irurtzunen Kantuz.
22:00etatik aurrera VI. Larrazpitek.

»» **Maiatzak 26, igandea**
9:00etan Dianak, gaiteroak.
11:00etan Ergako trinitatean meza euskaraz.
12:00etan Meza gaztelaniaz. Ondoren otamena.
17:00etan Lara Larica antzezlan, kultur etxean. Zirika Zirkus Taldea.
17:30etik 20:30era Dantzaldia Modestorekin.

hietako bizpahiru abestuko dituzte. Akordeoilariaren baten laguntza izanen dute horretarako. Juan Angelek azaldu digunez, biharko ongi ateraz gero esperientzia errepikatzeko ideia ez dute baztertu.

Guaixerekin Gariaren kontzertura

Bi sarrera ditugu ondoko galdera erantzuten dutenen artean zozketatzeko:

Zenbat urte beteko ditu aurten Berriak?

Erantzunak ekainaren 5a baino lehen bidali bierrifundazioa@gmail.com helbidera.

Sarituak ekainaren 7an emanen ditugu ezagutzera





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Jose Miguel Olano

III. urteurrena

Beti egongo zara gure bihotzean

Zure familia

Urtemugako meza maiatzaren 26an, igandean, 11:00etan Lakuntzako elizan.

Martin Berastegi Berastegi Miguel Angel Berastegi Razkin

II. urteurrena

Memoyen gordez
biyotzien bizi.

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Urdiango Euskaraz kanpainarako begirale bat behar da. Curriculumak ekainaren 3a baino lehen Urdiango udaletxean utzi. Informazio gehiago jasotzeko deitu 676- 30 00 83 telefonora.

Aisialdiko monitoreak behar ditugu.

Arbizuko Udala. Curriculumak aurkezteko epea udaletxean ekainaren 4a arte edo info@arbizu.info helbidera bidali.

Enjoy English koordinatzailea behar da.

Ekainaren 26tik uztailearen 23ra bitarteko lan kontratua, 5 ordu eta erdiko lanaldia egunean. Ezinbestekoa ingeles eta euskara maila altua izatea. Aldez aurretik, bi egunetako formakuntza jaso behar da, bata maiatzak 31an eta bestea ekainak 25ean. Curriculumak etxarri@ikastola.net helbidera bidali edo ikastolako idazkaritzan utzi hurrengo asteazkenean, maiatzak 22rako.

Saldu / erosi

EROSI

2. eskuko txirridula estatikoa erosiko nuke. Interesatuek hots egin dezatela 699- 78 07 72 telefonora.

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako elkarteak alokatzen da.

Lizarragako San Adrian festak direla eta, ekainaren 15ean, 16an eta 17an "Azi Iturri Txokoa" elkarteak alokatuko dugu. Ekainaren lehen arratsaldeko 18:00etan enkantea egingen dugu. Gutxieneko alokairua 600 €koa izanen da.

Ikastaroak

Birziklatze tailerra. Irakaskuntza artistikoa eta sormen pentsamendua. Idoia Osés Perezek zuzendutako tailerra. Maiatzaren 4, 11 eta 25 eta ekainaren 1a, 10:00etatik-12:00etara (12-15 urtekoentzat), 12:15etatik-14:15etara (16 urtetik gorakoentzat). Doan. Tokia Lakuntzako Udala. Izen ematea 948- 57 60 15.

AESei ikastaro hauek antolatatu ditu.

"Elkarrizketak ingelesez", 35 ordu, maiatzaren 29tik uztailearen 3ra; "Buruko mapak. Informazioaren antolaketa optimizatze erremintak", 15 ordu, ekainaren 6tik ekainaren 20ra; "Nola landu aurkezpen eraginkorrak", 25 ordu, ekainaren 7tik ekainaren 21era.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88

eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>

Lehiaketak

Irurtzunen festetako irudi bila. Aurtengo festak iragarriko dituzten kartelak aukeratzeko 23. edizio aukeratzeko lehiaketa antolatuta du Irurtzuno Udalak. Epea: maiatzaren 31 baino lehen. Bi maila izanen dira: 14 urte artekoak eta helduentzako. Informazio gehiago www.irurtzun.es

Arbizuko Sanjuanetako kartel lehiaketa.

Edozeinek parte har dezake eta edozein teknika erabilita. A3 tamainako lanak, "San Juanak Arbizu 2013" testua agertu behar da. Saria: 200 €. Lanak garagarriaren 1erako aurkeztu behar dira udaletxean. Informazio guztia www.arbizu.info web orrian.

Goitiurak Txunkain.

Altsasuko auzoko festak ekainaren lehen ospatuko dira. Goitiuren lehiaketa irabazlearendako 100 euroko saria iragarri dute. Parte hartzera animatu dute.

"Pedro de Atarrabia" XXIV literatur sariketa. Atarrabiako Udalak antolatuta, idazlanak aurkezteko epea 2013ko abuztuaren 16an.

Oharrak

Galtzagorri ludoteka Arbizu. Izena emateko

epea ekainaren 4ra arte udaletxean. Haur bat 80 €, bi 130 € eta hiru 150 €. Uztailearen 1etik 31ra.

Odol emaleak. Ekainaren 10ean Irurtzunen, arratsaldean.

Haurraren errietoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza
euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Urdiango eskolan negutegi bat behar dugu.

Hots egin telefono honetara 948- 46 83 45.

XVI. Igartza literatura, sorkuntza beka idazle berrientzat.

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak beka hau sortu dute idazle berrientzat. 6.000 euroko diru-laguntza izango du. Epea: 2013ko ekainaren 30a. Nora bidali: kultura@beasain.net. Argibideak: Beasaingo Udaleko kultura eta Euskara saila - Loinazko San Martin plaza - 20200 Beasain. Telef: 943- 02 80 63, faxa: 943- 02 80 71 eta kultura@beasain.net

Solasaldiak nederlanderaz. Informazio gehia-

JAIOTZAK

- **Markel Sueskun Herreros,** maiatzaren 13an Altsasun.
- **Iban Cano Villalba,** maiatzaren 18an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Migel Cabeza Lopez,** maiatzaren 14an Altsasun.
- **Martina Zufiurre Bengoetxea,** maiatzaren 19an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

go.larrezabaldk@inigoaritz.com

Nafarroa Oinez. Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerrik asko! <https://docs.google.com/spreadsheets/EmbeddedForm?formkey=dEZwZ0ZidIV6RUVtDHFjMklvR1c4TGc6MQ>

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



maríaeugenia
Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

Datorren astetik aurrera
25,50€-ko eta 100€-ko bonoak
zozketatuko ditugu

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

TxikiTxo

haurren arropa eta lentzeria



948 46 73 08
Ferialleku 2 · ALTSASU

GIMNASIA ERRITMIKOA

ISKIZA KIMUETAN ONENA: Nafarroako Kirol Jokoen jardunaldia jokatu da Mendillorrin, klubaren arteko bakarkakoa. Iskiza tal-

dea onena izan zen kimuetan, Eider Goikoetxea pilotarekin eta sokarekin eta Eneritz Regil mazoekin lehenak izan eta gero.

kirola >>

Mendi lasterketak



Zegama eta Ezkaba

Igandean Zegama-Aizkorri maratoi famatua jokatu da (42 km, 5.472m desnibela), Munduko Kopako lehen lasterketa puntuagarria. Puntako espezialistak ariko dira bertan, izan ezaz gero Kilian Jornet eta Oihana Kortazar buru direla. Korrikalari guztiak bertan egon nahi izaten dute, baina soilik 450 korrikalariendako tokia dago. Hala ere, sakandarrak Aizkorri gora ikusteko aukera izango dugu, Arrieta anaiak, Unzurrunzaga, Goikoetxea, Salgado... tartean. Baina Zegama-Aizkorri aparta badago mundurik. Zegaman aritzeko tokirik gabe geratu direnak igandean Ezkaba Traila jokatzeko aukera dute Antsoainen. Mendi korrikalariak bi ibilbide egiteko aukera izango dute: 25 km-koa (1.450m desnibela), Ezkabaraino igotzen dena, eta 18 km-koa (900 m desnibela).

MAIZA 12.A IZARRAITZEN

Igandean IX. Izarraitzen Mendi lasterketa jokatu zen Azkoitia (20 km). Abderrahim El Qayed tolosarra gailendu zen (2:00:19). Jose Javier Maiza etxarriarrak lan ederra egin zuen eta 12. a iritsi zen helmugara (2:10:39). Alberto Razkin 27. a izan zen (2:21:58) eta Juanjo Otxoa 69. a (2:53:24).

Atletismoa

Iturmendin Aitzkozar

IX. AITZKOZAR HERRI KROSA JOKATUKO DA BIHAR, LARUNBATEAN. 17:00ETAN KATEGORIA TXIKIKOAK ARIKO DIRA, ETA 18:30EAN NAGUSIAK

2010etik Iturmendiko Aitzkozar elkartek eta Bakaikuko Bakarrekoez elkartek elkarrekin antolatzen dute Aitzkozar Herri Krosa. Aurten 9. edizioa izanen du aipatu lasterketak eta Iturmendiko Aitzkozar elkartearen aurrealdea, hau da, plaza, izanen du irteera eta helmuga. Bi elkarrekin Dantzaleku Sakana klubaren laguntza izanen dute antolakuntzan eta hainbat entitate eta komertzioen babesarekin.

Kategoria txikiak eta proba nagusia

Gazteenek emanen diote hasiera probari, bihar, 17:00etan. Aurrebenjaminen, benjaminen, kimuen, haurren eta kadeteen lasterketak Iturmendiko kaleetan jokatu dira. Ondoren proba nagusiaren txanda izanen da, 18:30ean. Gazteak, helduak eta beterranoak ariko dira. Bakaikuko eta Iturmendiko dermioen artean markatutako 4.050 metroko ibilbideari buelta bakarra emanen diote gazteek, eta bi buelta helduek eta beterranoek, 8.100 metro osatuz.

Oparia eta merienda

Iturmendiko helmugan lasterketa bukatzen duten korrikalari guztiak oparia jasoko dute. Lasterketan nagusiko irabazleek, gizon nahiz



Iazko edizioan Harassa eta Charki gailendu ziren.

emakumeek, diru saria eta trofeoak jasoko dute. Behe mailan ere trofeoak banatuko dira. Eta eguna borobiltzeko, antolatzaileek askaria antolatu dute korrikalari guztiendako.

Iaz zapora marokoarra izan zuen probak. 114 korrikalari aritu ziren proba nagusian eta Abdelhadi Harassa, gizonezkoetan, eta Salima Charki, emakumezkoetan, nagusitu ziren. 3.a eta lehen sakanadarra Javi Moreno altsasuarra

izan zen.

Izena ematea zabalik

Aurrez izena emateko aukera dago, 948 562 034 edo 606 398 802 telefonoetan edo www.dantzalekusakana.com web orrian. Lasterketa egunean bertan, proba hasi baino ordu bat lehenago inskripzioa osatzeko aukera izanen dute korrikalariak Iturmendiko Aitzkozar elkartean. Helduek 5€ ordaindu beharko dute. DYAk proba jarraituko du.

Lasterketak Sakanako X. Atletismo Kopa mustuko du


Aitzkozar lasterketak Sakanako Mank-ek antolatutako Sakanako X. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria mustuko du. Iturmendiko azgain, bestehiru lasterketek puntuatuko dute koparako: Ergoienako X. Birak (irailak 21), Sakanako XIII. Herri Lasterketak (urriak 26) eta Altsasuko Barricarteren Oroimenezko Lasterketak (abenduak 8).

Sakanako 10 hoberenek puntuatuko dute eta gutxienez 3 probatan parte hartu beharko da. Saria: lehen gizon-emakumeek 80 euro kirol materialean, bigarrenek 60 euro eta hirugarrenek 40 euro. Gainera, proba guztietan parte hartzen dutenen artean sari bat zozketatuko da.

Moreno lehen beterranoa Portugaleten

Asteburuan Portugaleteko Milia jokatu zen. Javi Moreno altsasuarra lehen beterranoa izan zen.

AUKERA GUZTIETAKO ELTXO-SAREAK 18 KOLORE



GORTINAK ETA ETXERAKO OSAGARRIAK

948 46 73 04 · Pilotajoku zeharbidea, 8 · Altsasu · www.cortinasizara.com · info@cortinasizara.com

Futbola

Lagun Artea hamalagarrena 3. mailan

Despeditu da 3. mailako denboraldia. Lakuntzako Lagun Artea denboraldi polita egin du eta 3. mailari eustea lortu du, denboraldi hasieran oso zaila aurreikusten zen helburua. "Mailari eutsi nahi diogu, baina ezin bada ezin da eta ez da ezer pasatzen. 3. mailaz gozatu ahal izan dugu eta aurrera" adierazi zuen Migel Angel Areta Lagun Arteako zuzendaritzako kideak denboraldi hasieran. Hortaz, kategoria mantentzearen helburu oso konplikatua bete dute Josu Domingez entrenatzailearen mutilek. Jokalari gehienak lakuntzarrek eta sakandarrak dituen taldearendako lorpen handia da hori.

Azken partida Murtxanteren kontra jokatu zuen Lagunetek xean etamalez, lakuntzarrek ezin izan zieten euren zaleei garaipena eskaini ahal izan, 0-2 galdu baitzuten.

San Juan taldeak irabazi du 3. maila (80 puntu), Mutilberari 2 puntu aterata (78 p.). Eta Lagun Artea 14. postuan sailkatu da (45 puntu).

ALTSASU UDABERRIKO KOPAN. JOANEKOA GALDU

Erregional mailako denboraldia bukatuta, Udaberriko Kopa hasi da. Altsasuri Marcellarekin jokatzeko tokatu zitzaion, Erriberan. Bigarren zatian bina berdindu zuen Altsasuk eta 2-3 aurreratzea erlortu zuten baina Marcellak egoerari buelta eman zion eta 4-3 irabaztea lortu zuen. Larunbatean bi taldeek itzuliko partida jokatu dute Dantzalekun, 17:00etan.



IZURDIAGAKO FUTBOL 8

3. jardunaldiko azken lehiak jokoan

Asteburu honetan 3. jardunaldiko azken partidak daude jokoan.

3. jardunaldia

Larunbatean

11:30ean: Guanlarras - Rajatabla B

13:00etan: Karrotillo - La Txu

Igandean: Egjarreta - Gunea Taberna

Mendia



Zabalarte Eguna

Larunbatean Lakuntzako Zabalarte Klubak Zabalarte eguna ospatu zuen. Mendi kluba izanik, lehenik eta behin mendi ibilaldia egin zuten Aralartik barna.

Lakuntza-Aralarrerako izena ematea zabalik

Ekainaren 8an jokatu den 10. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa antolatzen dabilta buru-belarri Zabalartekoak. Aurten Nafarroako Mendi Lasterketan Zirkui-

Elurra mara-mara zegoela ibili ziren. Eta, jakina, Lakuntzako Pertza elkarrean ospatutako bazkari goxoarekin borobildu zuten festa.

turako baliagarria izateaz gain, Euskadiko Koparako puntuagarria izango da Lakuntzako lasterketa. Izena emateko epea zabalik dago www.lakuntza-aralar.com web gunean, ekainaren 6ra arte. Momentuz 86 korrikalari daude izena emanda.

Txirrindularitza

Sakana-Burunda elurtua

SAN MIGELGO KRONOIGOERA BERTAN BEHERA GERATU ZEN ELURRARENGATIK BAINA PROBA EZ LEHIAKORREAN ARITU ZIREN 66 TXIRRINDULARIAK GUSTURA IBILI ZIREN

Pronostikoe ez zuten huts egin eta larunbata euripean eman genuen. Hala ere, Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako III. Sakana-Burunda txirrindularitza marxa ez zen bertan behera gelditu. 72 pertsonen zuten izena emanda aurretik eta egunean bertan 10 txirrindularik bete zuten inskripzioa, eta, azkenean, 66 txirrindularik hartu zuten irteera. Eguraldiaren eraginez Sakana ezagutarazteko eta zikloturismo egun polita pasatzeko helburuarekin antolatutako proban aldaketak izan ziren. Ibilbidea murriztu zuten, Aralarren elurra ari zuelako, eta San Migelgo krono-igoera bertan behera geratu zen.

Ibilbidean aldaketak

Altsasutik aterata Ziordiraino jo zuten 66 txirrindulariek, Olaztin sartu, Urbasako portua igo, Alta-



Txirrindulariak Lizarragatik pasatzean. ERKUDEN RUIZ BARROSO

miratik jaitsi eta Etxarri Aranatzen Lizarragako bidea hartu zuten. Uhartea Arakilen aurrera egin zuten Aralarko santutegira igo ordez. Irañetara jo eta bertatik Arakil aldeira egin zuten, Etxarrenen buelta hartu eta, atzera ere, Altsasuraino joan ziren. "Biziraun dugu" adierazi zuen Migel Indurain txirrindulari ohi handiak helmugan.

Areto futbola

Triman irabaztera behartuta play offetako itzulikoan

PLAY OFFETAKO JOANEKOAN 4-5 IRABAZI ZION TRIMANI INTER MOVISTARREK

Play off-etako final laurdenetako joaneko partida jokatu zuten, ostiralean, Triman Navarra Xotak eta Inter Movistarrek. Anaitasun bildutako 2.700 zaleen laguntzarekin, irabazten hasitzen Triman. Baina, segituan, Eseverri kapitaina lurrera erori zen Interren falta gogor baten ondorioz eta, lesionatuta, partida utzi behar izan zuen. Hilabete bat emango du bajaran. Baina arbitroak ez zuten faltarik adierazi.

Bi minuturen faltan Trimaneke 4-2 irabazten zuenean, 4-3koa sartu zuen Gadeiak eta partida bukatzeko 9 segundoren faltan, launako berdinketa lortu zuen Borrutok.

Berdinketa hausteko 5 minutuko tartean Trimaneke aukera oso garbiak izan zituen, baina, tamalez, Interreko Alvarok lortu zuen gola sartzea, eta Inter 4-5 gailendu zen. Trimaneke jokalariek malkoak zituztela bukatu zuten, inpoten-

tzia handiarekin.

Imanol Arregi zuzendaria triste azaldu zen galdu izanagatik eta arbitroen portaera kritikatu zuen. Baina jokalariek egindako lanagatik kontentu azaldu zen, harro "pistan hustu direlako".

Orain, buelta ematera

Oso zail jarri zaizkio gauzak Irurtzungo taldeari. Bihar, larunbatean Madrilen jokatu den itzulerrako partida irabazi beharko du (Marca TV, 13:00etan) eta berdinketa hausteko 3. partida behartu, igandean Madrilen jokatu litzatekeena, 13:00etan. Oso zaila da, baina ez ezinezkoa. "Alcalá de Henaresera garaipena lortzera joango gara, gure buruan ez bage-nuke sinistuko ez ginatekeelako ere kantxara aterako" nabarmendu du Imanol Arregik. Ea sorpresa ematen duten.

Sokatira

Sakana eta Andra Mari txapela ekartzeko aukerekin

Igandean Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketaren 3. jardunaldia jokatu zen Iruñean, eta bihar, larunbatean azken jardunaldia jokatu da Berriozarko Eguzki Plazan, 18:00etan.

TXAPELKETAREN MARTXA

Emakumezkoetan (260 kilo) Sakana taldeko neskek aritu ziren hobekien, Basaburua-Imotz, Berriozar eta Txantreari irabazita. Saillapenaren lehenena da Sakana (10,5 puntu), Basaburua-Imotzi 2 puntu aterata (8,5 p.). Berriozar 3.a da (8 p.) eta Txantrea azkena (3 p.).

Kadete mailan (280 kilo), Berriozar A Etxarriko Andra Mari ikastolako taldea baino gehiago izan zen, puntu bateko aldearekin. Saillapen orokorrean Berriozar Ak (14 p.) puntu eskas bat ateratzen dio Andra Mari-ri (13 p.). Atzetik daude Berriozar B eta Ultzama, 7,5na punturekin, eta Beriain (3 p.).

Tel.: 948 562 829
faxes: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

BEHAR DITUZUN HERRAMINTA GUZTIAK!

GANUZA
SUKALDEAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Elektragailuak

GANUZA
GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203
faxes: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

FELIX OTEGI

TAXIA
9 lagunendako
tokia

660 342 071
IRURTZUN

PPSOE,

ETB
digitala

Nafarroan
orain!

Berrira erosi taldea

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

Motoziklismoa



Ostiralean entrenamendu libreak izanen dira, larunbatean ofizialak eta igandean lasterketak (11:00etan eta 14:00etan).

Mariñelarena lidergoa mantentzera MotorLanden

Espainiako Motoziklismoko Abiadura Txapelketako bigarren proba jokatu da asteburuan Aragoiko MotorLand zirkuituan. Moto 2 mailan Montmelón jokatu da lehen dabilziko lasterketa irabazi zuen Alex Mariñelarena irurtzundarrak (Targobank Motorsport, Suter) lidergoa mantentzen eta sendotzen saiatuko da. Moto 2 kategorian 36 pilotuk eman dute izena.



Marcos Berazak pasa den urtean Nafarroako Enduro Txapelketa irabazi zuen eta 7.a izan zen Espainiako Enduro Txapelketan.

Beraza lehen juniorra Oibarren

Larunbatean Aibar-Oibarko Enduro lasterketa jokatu zen, Nafarroako Enduro Txapelketarako baliagarria eta euriak eta lohiak guztiz baldintzatu zutena. Hala ere jendetza bildu zen lasterketa jarraitzera. Enduroak motokrossaren abiadura eta trialaren teknika nahasten ditu, bien arteko nahasketa da. Afizionatuetan Jesus Ansa nagusitu zen, seniorretan Josu Artola, beteranoetan Wenceslao Perez eta juniorretan Marcos Beraza irrintarra.

Frontenisa

SAKANAKO EMAKUMEEN VI. FRONTENIS TXAPELKETA

6. jardunaldia jokoan

Sakanako Emakumeen VI. Frontenis Txapelketan gaur, ostiralean, ligaxkak 6. jardunaldia jokatu dute.

6. jardunaldia

Olaztin, ostiralean 2. maila

19:00etan Mainer-Leonor / Maria-Maider

19:30ean Izaskun-Mirentxu / Marta-Maite

Atsedean: Andrea-Izar

1. maila

20:00etan Edurne-Vanesa / Ruth-Yolanda

Atsedean: Beronika-Maite

Etxarri Aranatzen, ostiralean 1. maila

20:00etan Kristina-Maialen / Ainhoa-Txaro

20:30ean Yanira-Maite / Mireia-Elena

2. maila

21:00etan Ane-Uxue / Uxue-Irati

21:30ean Jone-Uxue / Amair-Irati

Pilota

21. IRURTZUNGO PILOTA TXAPELKETA-LACTURALE

Nortzuk jantziko dituzte txapelak?

Finalak jokoan larunbatean, 9:00etan

21. Irurtzungo Pilota Txapelketa-Lacturale bukaerara helduda. Bihar, Irurtzungo Trinitate festen ospakizunen barruan, txapelketako finalak jokatu dira, goizeko 9:00etatik aurrera. Sei final daude jokoan: umeena, kimuena, haurrena, kade-teena, gazteena eta helduena.

150 pilotari baino gehiago lehiatu dira Irurtzun Pilota Klubak antolatutako txapelketan eta urte-tik urtera garrantzi handiago hartzen ari da. Horrenbeste partida antolatzeak lan asko ematen du. "Nola egiten den? Ordu asko sartuta" kontatu digu klubeko kide Migeltxo Berazak.

Txapelketan Euskal Herriko eta Errioxako makina bat klubeko pilotariak lehiatu dira, asko euren mailetan puntan dabilzianak eta palmares ederra dutenak. Hainbar pilotari sakandar heldu dira finalera: Laso-Azpiroz (Irurtzun), Olaetxea-Alberdi (Aldabide), Bakaikoa (Erreka) eta Ezkurdia-Irañeta (Irurtzun).

Sarasola eta Nagore omenduak

Finaleko ekitaldia Irurtzungo pilota klubari lotuta egon diren bi pertsonen omenaldi beroa egiteko aprobetxatuko dutela adierazi digu Migeltxo Berazak. Alfredo Sarasola "Cancho", urte luzez klubeko monitorea izandakoa eta Jorge Nagore, klubari bizitza guztian lotura egon den irurtzundarra omenduko dituzte. "Urte askotan lan handia egin dute Irurtzunen pilota susta-



Aurreko urteko finalisten talde argazkia. UTZITAKOA

tzeko eta omenaldia merezi dute" adierazi digu Berazak. Frontoi baten itxura duen oroigarria edo plaka jasoko dute biek. Ondoren, zuzendaritzak eta bestek eginen duten bazkarira gonbidatuko dituzte.

Zabaletari omenaldia



Jose Javier Zabaleta pilotari etxarrendarrak omenaldi beroa jaso zuen asteburuan bere jaioterrian. Etxarrengo Aranburu pilotalekuak hartu zuen ekimena, eta hainbat opari jaso ondoren, aureskua dantzatu zioten Binakako txapelidunari. Segidan auzate ederra izan zen.

Txirrindularitza

Giroari agur

Oso pozik daude Jose Luis Arrietak zuzentzen duen Movistar Team taldean, lau etapa garaipen lortu dituztelako: bi Giovanni Viscontirekin, Vicenzan eta Galibierren eta bana Dowsettekin -Saltaran- eta Intxaustirekin -Ivrea-. Gainera, sailkapenean 9.a zen bizkaitarra.

Aldiz, eta atzoko kronoigoeraren emaitzen faltan, Euskaltelek ez du momentuz helburua lortu: etapa garaipena. Samuel Sanchez liderra goian egotea zen beste asmoa, eta horretarako talde sendoa eraman zuten Girora, Sanchez eneskudra osatzen duten Azanza, Egoi, Verdugo eta Urtasun tarteko. Saiatu dira, ihesaldietan egon dira, Samuelek erasoak jo ditu... baina ez da lortu. Gainera, zortea ere ez dute alde izan, Pablo Urtasunen erorikoa eta taldekako erlojupekoan izan zuten matxura mekanikoa tarteko. Ea Alpeetako azken bi etapa hauek aukera ematen dieten.

Datorrena: etapa alpinoak

Atzoko kronoigoeraren emaitzen faltan, goizean Vincenzo Nibalik

jarraitzen zuen lider, Evansi 1:26 eta Urani 2:46 aterata. Sakandarrei dagokienez, Egoi Martinez 23. azen, 27:24ra; Jorge Azanza 37. a, 56:12ra; eta Gorka Verdugo 73. a, 1:53:10era.

Gaur, ostiralean, Gabia mitikoa (2618 m) eta Stelvio (2758 m) pasa beharko dituzte, Val Martello gainean (2051 m) bukatzeko. Eta larunbatean lau portu dituzte, Lavaredo (2304 m) gainean despeditzeko. Ea nork jantzen duen maglia arrosa igandean.



Azanza indar betean. UTZITAKOA

Asteburuko probak

Juniorrek bihar, 17:00etan, lasterketa dute Arren (74 km), Nafarroako Txapelketa. Kadeteek igandean, 11:00etan, Murietan (54 km). Afizionatuek, bihar, 15:30ean, proba dute Igantzin, Nafarroako Txapelketa (130 km) eta igandean, 10:00etan, Markinan (104 km). Maiatzaren 29ean Nafarroako Itzulua hasiko da.

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:


- tripota
- tripotxa
- mihia
- kalluak
- saltxitxak
- frituak

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

Euskararen historia antzeztua

Gaur, ostirala, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Tartean teatro

Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek euskararen historia errepasatuko dute gaur Etxarri Aranazten. Aurrenak idatzitako gidoiaren teoriaren arabera euskaldunen arteko edo kanpokoekin izan ditugun liskarrek sortu eta garatu dute euskara. Liskar bakoitzak aldaketa batekarri du. Teoria horren ondorioa da euskararen garapena ez dela inoiz geldituko, "gatazkak, modu bate-



koak edo bestekoak, beti egongo direlako".

Antzezleek kontakizuna para-

disuan abiatuko dute, non bikoite bakar bat bizi zen. Mundu estatiko eta baketsua zen, eta nahi-

batBIRAlau

Izen hori du euskal kulturaren Nafarroako zirkuituak, Euskaltzaleen Topagunea (Aizpea eta Kima euskara taldeak eta Bierrik fundazioa kide dira) antolatzen duena. Bosgarren edizioa apirilaren 14an hasi eta gaur despedituko da. Zirkuitua formatu zein kalitate handiko lau ikuskizunek osatu dute. Cederna-Garalurren

koa ziren onomatopeiak inguruko animaliak eta agerraldi naturalak deskribatzeko. Seme-ala-

laguntzarekin aurrera atera da. Federazioaren zein berekidediren euskara elkarten helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, besteak beste, kultur gintzalantzen dute, kultursormena eta haren kontsumo aktibo eta gozagarria bultzatuz. Horren adierazle dira Film Laburren Zirkuitua, Irakurri, Gozatu eta Oparitu, Kultur Errota eta hari lotutako formatu txiki koeskualde zirkuituak.

ben etorrerarekin sortu zen Euskal Gatazka, orain arte iraunduen fenomeno.

Pasioa, maitasuna eta heriotza: Bodas de sangre



Larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. El Bardo antzerki taldea

Altsasuko III. antzerki amateur zikloa Federico Garcia Lorcak idatzitako tragedia baten antzezpeneak despedituko du. *Yerma* (1934) eta *La casa de Bernarda Alba* (1936) obrekin batera egilearen landa trilogia osatzen du *Bodas de Sangre* (1933). Bizitza eta heriotza lantzen ditu lan horretan Lorcak, baina antzinakoa (mitoak, legendak, paisaiak) eta bere garaikoa nahastuz (ohiturak). Guztia paisaia

El Bardo

Atarrabiako taldea 2010eko hasieran sortu zen, hala ere, eskarmentu handiko kideak dauz bertan. Bere muntaiek konpromiso artistikoa eta sormen originala dute helburu. Muntai poetikoen ondoren, antzerki klasikora jauzi egin du konpainiak.

andaluziar tragiko eta unibertsal batean kokatua.

Zantzuz beteriko pasio baten kronika da bihar Altsasun antzeztuko dena, emakume

Afaltzen komentatzeko

Antzezlaren inguruko iritzi trukateta afaltzen egin nahi dutenak zorteko dira. Izan ere, ikusleek On Egin egitasmoaren bidez, antzerkira joaten diren ikusleak sarrera erakuste hutsarekin %15eko deskontua izanen dute Biltoki, Basamutur, Arkangoa, Irubide, Iruñabide, Il Padrino edota Kaixo jatetxetan afaltzerakoan. Jatetxe bakoitzaren eskaintzaren berri lortia sarreraren jasoko dute gainera. Bihar despedituko den Altsasuko antzerki amateur zikloarekin batera jarri zen martxan On Egin

egitasmoa, hilaren 11n.

Antzerki zikloaz aparte, merkeago afaltzeko eskaintza garagarri-laren 8ra ere zabaldu da. Egun horretan Garik Berria egunkariaren alde kontzertua eskainiko du Altsasun. Ondoren ikusleak afaltzera joateko aukera izanen dute sarrera erakuste hutsarekin. On Egin egitasmoa Altsasuko jatetxeen, Altsasuko Udalaren eta Bierrik fundazioaren arteko elkarlanaren ondorioz sortu da. Kultura eta gastronomia lotuz, tokiko ekonomia mugitzeko asmoa duen egitasmoa da. Antzezlaren eta afa-riak, On Egin!

batengatik bi aurkariren heriotzara arteko borroka. 1928ko garilaren 22an Almeriako Nijar herriko Cortijo del Frailen izandako gertakarietan oinarritu zen

Lorca bere lana ontzeko: bi familien arteko ezin ikusia, ezkontza bat, zaharberri tutako maitasuna, pasioa, ihesa, borroka, heriotza, etsipena.

bazterretik

Andoni Igoa

Lastozko eraikuntza

Gaurkoan hain ezezaguna den lastozko eraikuntza sistemaz hitz egingo dut. Lastozko etxeak daudela entzuten badugu, barre egiten dugu hiru txerrixoen kontua gogoratuz. Baina lastoa, gizakiak antzinatek estalpea egiteko erabili duen material bat da. Gaur egun leku anitzetan erabiltzen da adobe zoko adreiluak egiteko edota teilatu impermeableak eraikitzeke. Lastozko fardoan erabilera berriagoa da, lastoa modu horretan paketatzeke sistema berria baita eta telebistan bertan noizbehinka ikus

dezakegu lastozko fardoekin egin dako etxetxoren bat. Nik uste dut gero eta kontzientziatuago gaudela ingurugiroa errespetatzearekin, horregatik lastozko eraikuntza aukera ekologiko on bat dela esango nuke. Lastoa eta lurraekin batera, material ekologiko ugaria eta lortzeko erraza da. Gainera naturara itzulazteko ez dute inolako arazorik ematen, kutsadura eta zabortegei kontuan.

Noski, denak bezala, eraikitzeke sistema honek bere gabeziak dauzka. Adibidez eraikin handiak ezin dira modu honetan egin, baina egur

egiturez lagunduta etxebizitza merke, eroso eta dotoreak egin daitezke.

Lastozko eraikinak kostu energetiko oso baxua daukate eta CO₂ emititu beharrean, hau xurgatu egiten dute. Horrez gain, isolatzaile termiko izugarri onak dira eta horrelako eraikuntza batek berogailu kostuak asko aurrezten ditu.

Ongi diseinatu eta eraikiz gero, fardo zoko eraikin baten bizitza 80-100 urte bitartekoa izan daiteke, hormigoizko eraikinak aldiz, 50 urteko bermea ematen digute. Sistema honek duen berezitasun bat, sistema merkea, ximplea eta norberak



eraikitzeke erreza dela da. Gertu ditugun bi adibide jarriko ditut, bata Noainen dagoen Loreneako

eraikina edota Sakanan bertan dagoen Arbizuko ekokamping-eko harrera eraikina.

Atrilak jendaurrera



Irurtzango musika eskolako eta Pablo Sarasate kontserbatorioko ikasleen hiru emanaldi daude iragarriak hurrengo egunetarako. Aurrena, Olatzagutian izanen da, bihar 18:30etik aurrera kontserbatorioko akordeoi ikasleek kontzertua eskainiko dute kultur etxean. Astelehen arratsaldean, berriz, Irurtzango musika eskolako ikasleek Atakondoako ikasleei kontzertua eskainiko diete. Astelehen bertan, baina Altsasun, 20:00etatik aurrera kontserbatorioan ari diren eta Burundako musika eskolatik pasa diren ikasleek kontzertua eskainiko dute.

Ikasleen lanak ikusgai

Maiatzaren 28tik garagarriaren 16ra arte Altsasuko Iortia kultur gunean

Itziaz Nazabalek bere arte eskolan dituen 60 bat ikaslek egin dituzten lanak jendaurrean erakustera animatu ditu. Eta, halaxe, haurzein heldu (erdi eta erdi), Iortian teknika ugaritako margolanak ikusteko aukera izanen da asteartetik aurrera. 3 urtetik gorako sortzaileek denetarik teknika eta estiloak erabili dituzte haien lanak ontzeko, Nazabal "ahalik eta gauza gehien irakasten saiatzen" baita.

Altsasuko margolariekin batera, Uhartar Arakil, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi eta Olatzagutiko ikasleek ere erakutsiko dituzte haien lanak. Irakasleak guztien hobekuntza ikusten du eta horrek "asko betetzen du". Gainera, batzuk txikitatik bere ondoan hazten ikusi ditu, eta lagun bihurtu dira. Profesionalki eta pertsonalki jasotako "fruitu polit horiekin" pozik dago Nazabal.

Etxarriko Dantzakia bandarako moldatuta

Igandean, 19:30ean, mustuko du Haize Berriak bandak, plazan

Etxarri Aranazko ospakizunetako dantzarako doinua, Dantzakia, bandak jotzeko moldatu du Alberto Gonzalez Urroz konpositoreak. Haize Berriak bandako kide da Idoia Loban etxarriarra eta berak azaldu duenez, bandak sortuta dauden musika eta doinuak jotzeaz gain, "obra berriak sortzeko ahalgin handia egiten ari gara". Azken horren adibide gisa jarri du sortu duten konposizio lehaketa eta hainbat konpositoreri musika berriak egiteko egindako eskaerak.

Lobanek azaldu duenez, "bandan ohartu gara Sakanan badirela normalean txistulari eta gaitere



roek jotzen dituzten doinuak. Horiek bandarako moldatzea egoki iruditu zitzaigun. Pieza horiek erromerietatik eta ateratzeko eta beste eszenatoki batzuetan jo ahal izateko; baita leku ezberdinetako musika taldeek gure sustrai eta

gure doinuak zabalduz, lau haize-etara eramateko ere".

Haize Berriak bandako kideek bide hori jorrazteko konpromisoa hartu zuten eta bidean lortutako hirugarren fruitua da etzi aurreko duten Etxarriko Dantza-

Egitaraua: Munduko dantzak

Deva	Pablo Sorozabal
Abba Gold	Abba
Granada	Agustin Lara
Lyric Waltz	Dmitri Shostakovich
The Girl from Ipanema	Antonio Carlos Jobim
Danzón N° 2	Arturo Márquez
Etxarri Aranazko Dantzakia	Herrikoia

kiaren moldaketa. Lobanek zehaztu duenez, dantzakiarekin batera, "zortziko bat, jota, porrusalda eta San Adriani biribilketa. Azken hori Jose Andres Sanchezek sortu zuen". Aurretik Haize Berriak bandak Altsasuko eta Olatzagutiko Zortzikoak moldatu ditu.

Bitan

Haize Berriak bandak bihar bitan joko du Dantzakia Etxarri. Euskal Jai ospatu zela 90. urteurrena dela eta (ikus 11. galdera) udalak omenaldia egin nahi izan die 1923ko maiatzaren 21era arte jaio ziren etxarriarrei. Haiek presente dardela bandak musika jo eta Etorkezuna dantza taldeko kideek zortziko dantzatuko dute. Aurretik Etxarri Aranazko abesbatzak herriko ereserkia kantatuko du.

Parkearen alde, kontzertuak



Bihar, larunbatean, 17:00etatik aurrera Lakuntzako plazan

Lakuntzako zineko lanak hasi zirenean parkea lekualdatu behar izan zen, parkea zinearen atzealdean zegoelako. Denbora tarte batean bertatik gertu zegoen plaza batera eraman zituzten parkeko trasteak, baina parkeko altzarien egoera eta aldameneko etxebizitza bateko obrak parkea ixtea ekarri zuten. Lakuntzan

dagoen parke bakarra igerilekuen ondoan dagoena da.

Aurreko urteko ekainean, dirurik ez zegola argudiatuz, Espainiako Gobernuak zineko lanak geldiarazi zituenean, eta egoerak luze joko zuela ikusterakoan, Udalak herriko talde, guraso eta interesatu guztiei laguntza eskatu zien guztien artean parke berri bat sustatzeko. Horrela, Parkea Martxan ekimena jaio zen. Taldeak aisialdi gunea berritzeko proiektu bat

Egitaraua

17:00etan Karaokea eta puzgarriak
18:30etan Bandurrien kontzertua / kantaldia
19:30etan Alkora drun sesion: perkusioa eta dantza afrikarrak
23:00etan Los del Rayo
1:00etan La banda del jefe Bigun + J. Kale margotzen

* Oharra: Sarrera 5 euro (16 urtetik gora). Edariak eta ogitartekoak salgai.

egin zuen. Dirua behar zela jakitun, dirua lortzeko makina batekitaldi antolatatu zituzten eta biharako prestatu den festa da haietako bat.

Kontzertuak plazan: herritarrak partaide

Eguraldiak igerilekuan iragarritako ekitaldia plazara lekualdatzea ekarri du. Arratsalde partean adin guztietarako ekitaldiak izanen dira: haurren dantza afrikarrak, dantza afrikarren ikuskizuna, bandurria eta kitarrak jotzen dituzten lakuntzarren kontzertua eta

Lanak aurten egiteko asmoa

Lakuntzako Udalak aurtengo aurrekontuen onarpenean erabaki duenez, aurten urbanizatu kodu zinearen, eskolen eta parkearen ingurune guztia. Honek parkeari bultzada emango dio. Lanak udan egin nahi dituzte, hurrengo ikasturterako prest egoteko. Parkea Martxan ekimenez ardua parkea janzea izango da, hau da, jolasparke egituratua eta ez egituratua egitea. Lanak auzolanean egingen dira eta jokoak eta beste muntatzen irailetik aurrera hasi nahiko lukete. Udaletik Parkea Martxan taldea egiten ari den lana nabarmendu eta eskertu nahi izan dute. Bitartean, dirua lortzeko ekimenez aurrera jarraitzen dute Lakuntzan.

beste. Eta, gauean, rock kontzertuen txanda izango da. Los del Rayo talde altsasuarra izango da oholtzara igotzen lehena, La banda del jefe Biguni txanda emanez ondoren. Bitartean Kale-k zuzenean margotuko du. +www.guaixe.net

KOLDO ARANZ
ARTE ESKOLAKO ERAKUSKETA

Ortia KULTUR GUNEA
Frontoiko zeharbidea, z.g. 31800 - Altsasu | 948584272 | ortia@altsasu.net | www.facebook.com/ortia

MAIATZAK 25 20:30

BODAS DE SANGRE
EL BARDO

LOS AMANTES PASAJEROS
5€

EN SALAS LO ANTES POSIBLE
LOS AMANTES PASAJEROS
OSTIRALA IGANDEA
24 22:00 26 20:10

Sarrerak salgai: leihatila - 019 - entrados.com

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 58%	euria: 43%	euria: 10%	euria: 15%	euria: 33%	euria: 23%	euria: 43%	
Min: 5 Max: 10	Min: 5 Max: 11	Min: 4 Max: 17	Min: 6 Max: 19	Min: 7 Max: 14	Min: 7 Max: 15	Min: 7 Max: 14	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	12.9	0.3	85.3
Altsasu	12	1.5	59.8
Aralar	5.4	-1.1	57.9
Urbasa	10	-1	72

: ilargiaren aldia>>

	ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
	25	31	8	16

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Zure herriko festen programa diseinatu eta inprimatzen dugu

%5eko deskontua bazkide diren udaletxeei

Eskatu aurrekontua

948 564 275 / 948 562 107

>> 11

galdera

Jose Luis Erdozia

Etxarriko Euskara batzordea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osoa: www.guaixe.net

Guaixe erakusleiho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

1. **Duela 90 urte Euskal Jaiak ospatu ziren Etxarri Aranatzen. Zer ziren Euskal Jaiak?**
Festa egun bat izan zen, euskara bulkatzeko jaia; Euskaltzaindiaren asmoa izan zen eta gero Nafarroako Diputazioan finantziarioa bilatu zen.
2. **Lehenengo Euskal Jaiak Etxarri ospatu ziren?**
Euskaltzaindia 1919. urtean sortu zen, Euskal Jaiak Etxarri ospatu baino lau urte lehenago; eta helburu bezala jarri zen bi urtero horrelako Euskal Egunak antolatzea, euskara bultzatzeko. Lehenengoa 1921ean ospatu zuten hiru probintzietan eta Etxarrikoak izan ziren Nafarroan egiten ziren lehendabizikoak, maiatzean.
3. **Zergatik Etxarri Aranatzen?**
Garaiko prentsak esaten duen bezala Sakana guztia erdalduntzen ari zen, bereziki Arakil, Lizarralde eta Goñierri. Kezka horren aurrean egin zuten Etxarri; muga bezala hartu zuten eta euskara bultzatzeko edo babesteko festa egin zuten.
4. **Zer egin zen jai hartan?**
Jai 9:00etan hasi zen eta 19:00ak arte iraun zuen. Denetarik egon zen: bertsolariak, abestiak, irrintzilariak, haurrek poemak buruz esan zituzten... Arturo Campionek eta Damaso Intzak hitzaldiak eman zituzten. Biak euskaltzainak ziren; eta Irañetako parrokoa izan zena, Gaztiarena izeneko. Azterketa moduko batzuk ere egin zituzten inguruko herrietako haurrekin, ea haurrek euskaraz zekiten edo ez eta nola jakiteko. Oso pozik gelditu ziren.

5. **Orduan Nafarroako Diputazioaren laguntza izan zuten. Gaur egun posible litzateke Nafarroako Gobernuaren babesa izatea?**
Posiblea izan beharko litzateke. Suposatzen dut kultura arlotik eta laguntzaren bat egongo dela, baina askoz ere traba gehiago jarrita, nik uste. Baina, ez da ahaztu behar bertakoak ziren bi diputatu egon zirela, Oroz eta Baleztena izeneko batzuk. Gaur zaila ikusten dut diputatuak etortzea.
6. **Zer aldatu da?**
1923tik hona gauza asko gertatu dira. Gerra Zibila, eta, ondoren, 40 urteko diktadura bat. Denok dakiguzer jarrera izan zuen frankismoak: euskara debekatu egin zuen. Teorian 1978tik aurrera egoera aldatu behar zen, baina gutxi aldatu da. Hemen ere lege baten menpe gaude. Eremu euskaldunean gaude, baina trabak ditugu.
7. **Garai horretan euskara osasuntsuagoa al zen?**
Pentsatu behar da garai horretan aldaketa oso handia zela; adibidez, Irurtzun eta Altsasun trenagatik, eta Olazti aldetik ere Cementos eta industrializazioa etorri zen eta horrekin kanpotik jende asko iritsi zen. Inguruan ere euskara ahultzen ari zen eta kezka handiarekin hartu zen. Frankismoaren eraginean asko galdu zen Burundian: Altsasun, Olaztin, Ziordian, baita Iturmendin ere.
8. **Etxarri antolatu ziren Euskal Jaien 90. urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo duzue igandean.**
1987 edo 1988. urte ingurutik aurrera Etxarri Euskal Festa egi-

ten da maiatzeko azken asteburuan. Aurten Euskal Festa bihar egingo da, larunbatarekin, eta aprobetxatuz, pentsatu da igandean 90. urteurrena ospatzea ere. Duela 90 urteko egun hori errepikatzea da asmoa, antzeko zerbaitegitea: abestiak, irrintzilariak, hitzaldi laburrak: eta nahi garrantzia eman nahi diegu garai horretan bizi zirene eta gaur egun bizi diren etxarriarrei. Omenalditxo egingo diegu 90 urte hauetan asmoari eusteagatik, hau da, euskara bultzatzeagatik.

9. **Duela 90 urte ohikoak ziren euskararen aldeko festak?**
Lore Jokoak edo Juegos Florales deitzen zirenak ospatzen ziren erromantizismo garaitik eta bertako hizkuntzak berreskuratzeko egiten ziren.
10. **Beharrezkoak dira, gaur egun, euskararen aldeko jaiak?**
Zorionez edo zoritxarrez hori da errealitatea. Zoritxarrez esaten dut suposatzen delako kezka bat dagoela eta kezka handi hori dagoenean beharrezkoak dira. Askotan esaten da sekula ez direla izan hainbeste euskal hiztun gaur egun bezala; alde horretatik ongi. Baina sekulan ez da egon euskara arriskuan gaur egun dagoen bezala. Etxeetan bertan internet, telebista eta izugarriko konpetentzia dauka euskarak.
11. **Etxarriarrak nola hartu zituzten euskal jaiak?**
Orduko El Pensamiento Navarro aldizkariak esaten du jende asko egon zela. Etxarri aukeratzeko arrazoietako bat bertako hizkera oso garbia zelako azaltzen zuten.